

kalean behera

Halo taldea pop rock lehiaketako irabazle

Aste Nagusian jakinarazi dituzte Pop Rock lehiaketako irabazleak. Halo taldeak lortu du lehen saria. Hala, lau abestirekin CD bat grabatu eta 500 ale zabalduko dituzte. Halo taldearen atzetik geratu dira Dinamo eta El Hombre del Planeta X.

450 lagun inguru igeriketa zeharkaldian

Urumea ibaia itsasoratzen den lekutik Kontxako badiaraino igerian egingo dute bihar 450 bat lagunek. Helduen probak 2.950 metro ditu, eta haurrenak, berriz, 650 m. Helduen kategorian, 283 lagunek eman dute izena, horietatik 212 gizona.

20 zauritu baino gehiago herenegun

Hogei lagun baino gehiagok behar izan zuten herenegun Gipuzkoako DYAren laguntza. Lipotimiak, bigarren mailako erredura, eta zauri arinak zituzten. Horietako bi Donostiako ospitalera eraman behar izan zituzten, zauriak sendatzeko.

Erraldoi eta buruhandien kalejira

Urtero bezala, eta haurren gozamenerako kalez kale dabilta egun hauetan, Donostiako erraldoi eta buruhandiak. Alde zaharretik abiatu eta hainbat pasealeku eta kale zeharkatzen dituzte egunero Zurriola hiribidera iritsi arte.



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS
Erraldoiak.

EGUNKARIAREN puntuazioa

Zaragozana (Zaragoza)

Kolorea	5
Gardentasuna	4
Erritmoa	3
Aniztasuna	4
Iraupena	20'

PUNTUAZIO OROKORRA

3

Shellscape (Britainia Handia), abuztuak 11	4
Zaragozana (Zaragoza), abuztuak 12	3
Prestatech (Frantzia), abuztuak 13	-
Tomas (Castello), abuztuak 14	-

I.P. Innovative (Alemania), abuztuak 15	-
Piroges (Tarragona), abuztuak 16	-
Lidu (Txina), abuztuak 17	-
Ricardo Caballer (Valentzia), abuztuak 18	-



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

Donostiako zeruan kolore ugari ikusi ahal izan ziren herenegun.

Zerua urdin kolorez

Kolore urdinak eta aniztasuna nagusitu ziren astelehenean Zaragozana su etxearen emanaldian. Lan handia egin dutela ez da dudarik, izan ere, urdina nahiz morea lortzea oso zaila baita. Beraz, Donostiara lehen postuaren bila etorri direla ez da dudarik.

Koloreak nagusitu ziren Zaragozako su etxearen ekitaldian. Formei dagokionez boro-

bilak, palmerak eta beste hainbat irudi ikusi ahal izan ziren Kontxako zeru gainean. Erritmoa izan zen, aldiz, su festaren hutsune handiena. Une lasai ugari izan zituen, eta amaierako traka ez zen ohi bezain zaratatsua izan. 20 minutu pasatxo iraun zuen emanaldia luze egin zen askorentzat.

Gaur Tomas pirotekniaren ardura izango da su festa.

JOXE MARI ARBELAITZ SUKALDARIA

«Aste Nagusian ikusle moduan parte hartzen dute gehienek»

Igor Susaeta | DONOSTIA

Londresko sukaldari batekin mintzatzen ari zela harrapatu dugu Joxe Mari Arbelaitz sukaldaria. Antza, famatua egiten ari da Miramon inguruan kokatuta dagoen bere jate-txea. Festetan ere jendea hurbiltzen dela aitortu digu. Gu festez jardun dugu berarekin, besteak beste.

■ Urtero bezala Donostiako Aste Nagusia iritsi da: nola bizitzen duzu?

Betidanik, egun hauetan Goizuetako jaietara joan izan naiz, baina jatetxea Donostian jarri dugunetik, nola edo hala bizitzen ditut. Afariak eman ondoren, lagun talderen batekin bueltatxo ematen dut.

■ Ba al dago galtzen ez duzun ekitaldirik?

Jatetxean lan eta lan ibili ondoren, azken orduko giroa bakarrik bizitzen dut: kaleko giroa.

■ Zer falta da eta zer dago soberan Donostiako Aste Nagusian?

Herriko festak gehiago bizi izan ditut, eta kanpotik ikusita, parte-hartzea oso eskasa da. Jai hauetan, ikusle moduan parte hartzen da; iritzi hori orokorra dela uste dut.

■ Zezenketek pizgarri moduan balio izan al dute?

Zalantzarik gabe; batez ere jatetxeentzat. Festei ere, arratsalde parte horretan kolore pixka bat eman diotela uste dut. Hori bai, batzuek gustukoak dituzte; beste batzuek, berriz, ez.

■ San Sebastianek eta Santo Tomasek beste xarma bat dute, ezta?

Ni oiartzuarra naiz, baina festa horietan argi eta garbi ikusten da herritarren parte-har-



JON URBE / ARGAZKI PRESS

FESTAK ETA AFARIAK

«Festen aitzakiarekin, garai bateko lagunak edo koadrilak elkartzen dira afaltzeko»

tzea handiagoa dela. Jendeak beste modu batean bizitzen dituela uste dut.

■ Zer eskatzen diezu zuk festei?

Bi gauza: giroa eta parte-hartzea. Hortik abiatuta, bizitasuna areagotzen da. Horretarako, jendeak kateak erantzi, eta ausarta behar du izan.

■ Afari oparoak gailentzen al dira Aste Nagusian?

Festen aitzakiarekin, garai bateko lagunak, edo koadrila handiak elkartzen dira. Egia da bai, elkartze horrek, afari berezi bat dakarrela halabeharrez. Gisa horretako koadri-

lek, jatetxea asko girotzen dute.

■ Hurbiltzen diren atzerri-tarrek, ba al daukate gustu bereziren bat?

Zer edo zer berezia bilatzen dute; izan ere, Euskal Herriko sukaldaritzak interesgarria da oso.

■ Afariak noiz egiten dira gehiago negu-udazken parte horretan, ala udan?

Urte osoan antzera. Baina zonalde industrial batean kokatuta dagoenez, langile dezentetortzen da. Hargatik, oporraldietan nolabaiteko hutsunea nabaritzen da.